

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



BESTEAK ZURI LEZ, ZUK BESTEAI

Afrika'ko alegi onek, besteai laguntzearen balioa agertzen dausku. Sarritan izango dozu iñori laguntzeko aukerea. Ez egiozu laguntza ukatu.

Biziak munduari bira egiteko erabagia artu eban eta bide luzea egin-ondoren, gizon gaiso bat aurkitu eban, gorputza aundituta, ibilli eziñik.

—Nor zaitugu? —esan eutson gizonak Bizia ikusi ebanean.

—Ni bizia naz.

—Orduan kendu al izango daustazu ibiltea ta lana galazoten daustazan aunditu au?

—Bai, baiña zu aitzu egingo zara laster nigaz eta gaisoagaz.

—Zelan aitzu? Olako mirari bat beti izango dot gogoan.

—Ea bada, osatu egingo zaitut. Zazpi urte barru etorriko naz eta ikusiko dogu berbea bete dozun. —esan eban Biziak.

Biziak autsa artu eban bidean, burutik bera bota eutson eta bizkor geratu zan. Biziak aurrera jarraitu eban egun askotan, eta legenardun bat egoan txabola batera eldu zan.

—Nor zaitugu? —esan eban legenardunak.

—Ni Bizia naz.

—Bizia? Orduan osatu egiztazu legenarra!

—Bai, baiña zu laster aitzuko zara nitzaz eta gaisoaz!

—Ez orixe! Bizitza osoan gogoan izango dot mirari ori.

—Ea ba-da, zazpi urte barru etorriko naz eta ikusiko dogu emondako berbea beteten dozun.

Artu eban autsa bota eutson burutik beera legenardunari eta osatuta geratu zan, ume baten gorputzagaz.

Biziak barrero artu eban bere bidea eta egun batzuk igarota, itsu bat aurkitu eban eta onek baten bat bidez joiala sumatuta, itandu eutson:

—Nor zaitugu?

—Ni Bizia naz.

—Orduan ikusmena emon egiztazu!

—Bai, ikusmena emongo dautzut, baiña zu laster aitzuko zara nitzaz eta itsutasunaz.

—Bai zera! Ezelan be ez! Bizitza guztian gogoan izango dot miraria eta il arte eskerrak emongo dautzudaz.

—Ea ba da, ikusmena emongo dautzut eta zazpi urte barru etorriko naitzu, berbea bete dozun jakiteko.

Makurtu zan Bizia, bideko autsa artu eban eta aundikiro isuri eban itsuaren burura eta onek bereala ikusmena lortu eban eta pozez gaiñezka egoan.

Igaro ziran zazpi urteak. Gauzak asko aldatu ziran. Aundituduna, legenarduna eta itsua lanean asi ziran etxekoai laguntzeko. Etorri zan Bizia berak lagunduak ikustera.

Biziak bere burua itsu agertu eban eta itsu osatuaren etxera eldu zan ate-joka.

—Nor zaitugu? —itaundu eban itsu izanak.

—Ni gizon itsu bat naz. Egin neinke lo gaur zure etxean?

—Ezin ba, ezin. Ez daukagu lekurik etxean. Gaiñera itsuak maltzurak izaten dira eta olakorik ez dot nai etxean. Jarraitu egiozu zure bideari.

—Aurretiaz esan neutzun orain zazpi urte. Zu ziñan itsua eta nik ikusmena emon neutzun. Eta zuk esan zeunstan ez ziñala aiztuko nitzaz eta gaisoaz, baiña...

—Bai baiña nik...

Orduan Biziak artu eban bideko autsa bota eutson gaiñera eta itsu geratu zan.

Biziak bidea jarraitu eban osatutako legenardunaren etxera arte. Bera be legenardun lez jantzi eta txabolan deitu eban:

—Nor zaitugu? —esan eban gizonak.

—Ni legenardun errukarri bat naz. Artuko nozu zure etxean gau onetan?

—Legenardun bat! Zoaz emendik ainbat lasterren, zure gaisoa barriro neuri nastatu orduko!

—Esan neutzun nik, baiña zure berbeak gitxi balio dau. Len lez barriro geratu zaitel!

Barriro artu eban bere bidea Biziak eta gorputza aundituta ba'leuka lez jantzi eta gaso orretatik osatua zan gizonaren etxera urreratu zan:

—Igaro neike gaba zure etxean?

—Bai orixe –esan eban gaisoa izanak. Jesarri zaiten jateko eta edateko zeozer ekarri dagitzudan. Daukazun gaiso ori neketsua da. Ondo dakit, neuk pe euki neban-eta. Baiña orain zazpi urte emendik igaro zan Bizia eta osatu egin nindun. Beste zapi urte barru etorriko zala esan eustan baiña oraindiño ez da agertu. Geratu zaitel ementxe, neure etxean, eta datorrenean osatu egingo zaitu zu be.

—Neu naz bizia, –esan eban bidelariak eta zu izan zara osatuen artean bere gaisoa eta ni gogoan daukazan bakarra. Osasuntsu biziko zara bizitza osoan. Agur.

✠ OLAZAR'tar Martin'ek